



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

535. zkia.

XIII. urtea

2005eko ekainaren 24a



Ainhoa Lendinez

«Emozionantea da Nahaste  
Borrasten parte hartzea»

# BASKO RENT

Lanerako kontzeptu berria

## IBILGAILUAREN EGOKITZAPEN OSOA

### AURRETIKO TRATAMENDUA



Ibilgailu guztia garbitu eta berriztatu, motorea, hagonak, gurpilen pausoak....

### BARRUKO TRATAMENDUA



Tapiztegi osoa garbitu eta berriztatu (oihal edo larrua), moketak, plastikoak...

### KANPOKO TRATAMENDUA



Berriztatu, berpiztu, distirarazi, karrozeria babestu, lohi-babes, gurpilak...

### ZEIN DA HELBURUA ?

Autoarentzako **zerbitzu integrala** proposatzea. Autoaren **berezko itxura** berreskuratzeko egin beharreko pauso guztiak leku batean zentralizatzea.



SIGMA Industrialdea • ELGOIBAR

☎ 902 10 32 87



IBAN URIZAR



MIKEL KORNEJO

## ZOZOAK BELEARI...

Usaintzen al duzu Mikele?

Ez dira hilabeteen behin usaintzen diren laino horiek, ez. Giroak esnatu ote du jendearen uda egarria? Urteko lehen bainua, aurreneko mekaguen hotza dago!! Sartu orduko atera behar. Gehien bat aparkatzearen loteriagatik, igande kristau horiek e!! Eguzkiak sortzen dituen exodoak nekez baretuko dira uda pasa arte, auto barruan bainu bat hartzeko aukera bagenu behintzat.

Azken orduko buruhauste kalorikoak, korrika egitera ateratzea birjina aldapako gailurra ikusi arte, bikini operazioa martxan. Estali ezin ez dena desagertu egin nahi. Ikusi al dituzu Mikele aurten datozen oihal eskaseko modelito horiek? Imajinazioa mugatzen duten horietakoak? Grabitateagatik ez balitz adinaren kontuekin ere nahasiak ibiliko ginen. Newtonek ederki ezagutuko zituen ba grabitatearen gorabeherak, urteak pasa ahala, ditiburuak zerura begiratzetik lurra miaztera pasatzearena, adibidez. Eskerrak zintzilik daukagun hori estetikaren kontuengatik edo ederki ezkutatu behar dugun, emakume guztien kalterako. Maltzurkeriaz egin izan ditugun kritiken jo-puntua izatea ere ez litzaiguke gaizki etorriko, azken finean tamainak inporta du, edo udan bakarrik?

P.D: Sagar garestienari kosk egin ondoren, ea luma utzi eta 0 eta -ez osatutako gutunak bidaltzen hasten zaren.

«Ikusi al dituzu aurten datozen oihal eskaseko modelitoak?»

IBAN

«Lodiak bikini edo tangarekin ikusteak alaitu egiten nau»

MIKEL

Deitu suhiltzaileei!

Garun erreak, Ibane, horixe da usaintzen ari naizena. Zer dira grabitatea eta tamainari buruzko kontu horiek? Azken AR irakurtzen aritu al zara eguzkipean?

Istoriotxo bat: bazen behin Lleni izeneko neska Kaliforniar bat. Bera potola eta zatar samarra zen, besteak, berriz, oso sanoak eta ederrak. Hondartzara joan zen batean, soroslea azaldu zitzaion eta hondartza uzteko eskatu zion, ez baitzuten hondartzako arau estetikoak betetzen. Llenik, tristurak jota, zainak moztu zituen ondoan aurkitu zuen itsas-marraskilo batekin. Baina, hil aurretik, honako hau esan zion sorosleari: "ulertzen eta barkatzen zaitut".

Hondartzara joan eta gorputz ederrak begiratzea gustatzen zait, nola ez!, ni ere estereotipoen menpe nago, baina alaitu egiten nau emakume edo gizon lodiak bikini txiki edo tangarekin ikusteak. Hondartzak gero eta gehiago gogorarazten dit fokei buruzko National Geographic-en dokumental bat, baina ez naiz inoren pisuaz ari, eguzkipean hasperenka edo uretan freskatzeaz, elkarri begira edo elkarren gainean egoteaz baizik. Animaliak baikara, azken finean, bakoitzaren ete besteen biluztasunaz gozatzen. Ez al zen ba hori hondartza?

P.D.: Ai, Ibane, sagarrari hozka egin eta hortzik irentsi ez badut...



GAUZA GUZTIEK DUTE EDERTASUN IZPIREN BAT,  
BAINA PERTSONA GUZTIAK EZ DIRA IZPI HORI IKUSTEKO GAI



Confucio

## Patronatuaren gestioaz

Kiroldegiko eta Mintxetako harreraren lau urte egon ostean eta han zegoen lan guztia eguneratu eta gero, Patronatuak kalera botako ditu ekainaren 30ean Nerea eta Edurne. Izan ere, uztailaren 1ean Madrileko enpresa batek ordezkatuko ditu. Zer egingo dugu gure herriko jendearekin? Ni kiroldegiko bazkide eta erabiltzailea naiz eta ez dut aukerarik izan ez nire ahotsa entzunarazi, ez nire botoa emateko ere. Alkateari eta zinegotziei esan nahi nien herriaren alde egin behar dutela lan. Zer duzue herritarren kontra? Zer gertatu da Mintxetako igerilekuekin? Ekainaren 15ean ireki zituen ateak baina egoera barregarria! Zergatik ez duzue bildu zinegotzi, alkate eta Patronatuko zuzendariaren 9 hilabeteko soldata eta hainbat etorkinek osatutako taldea kontratatu obrak ahalik eta azkarren amaitu zitezen? Elgoibar bizirik dagoen bitartean herritarrok ez gara isilik geratuko!

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi nizkien Nerea, Edurne eta Ainarari egin duten lanagatik.

MARIA ELENA ARREGI

## Altxorraren bila?

Ez, farmaziaren bila baizik. Asteartean hilak 21, arratsaldeko 20:30ak aldera, anbulatorioan egon ondoren medikuak errezetatutako botika erosi ahal izateko Soraluzeko Ibañez farmaziara abiatu zen aita. Zergatik Soraluzera Elgoibarren lau farmazia baldin badaude? Bada, Elgoibarkoak ez zeukatelako guardiarik.

Bertara iritsi eta farmazia itxita zegoen! Mendaroko Fernandezi tokatzen omen zitzaion txanda.

Berriro autoan sartu eta Mendarora abiatu zen aita. Mendarora iritsi, autoa aparkatu eta FERNANDEZ farmazia ITXITA zegoen. Txirrina behin, bi, hiru, ... aldez jo eta inor ere ez.

Aita ikaragarritzko minarekin eta medikuak agindutako botika ezin harturik farmaziak itxita zeudelako. Zein zen gelditzen zitzaion aukera? Eibarrera joatea.

Berriro autoa hartu eta Eibarrera joan zen eta bertan irekita zegoen farmazi bat aurkitu zuen. Gaztelaraz esaten den bezala 'a la tercera va la vencida'. Extera gaueko 22:00etan iritsi zen.

Ordu eta erdi botika erosi ahal izateko. Benetan LOTSAGARRIA iruditzen zait egoera hau. Nola liteke horrela ibili beharra Elgoibarren 4 farmazia izanik?

Horrelako zerbait gertatu bazaizu, mesedez adierazi zuen kexa ondorengo helbidean eta ea horrela denon artean egoera hau aldatzea lortzen dugun :

COLEGIO OFICIAL DE FARMACÉUTICOS DE GUIPUZCOA

Prim kalea, 2

20.006 Donostia

cofgipuzkoa@cofgipuzkoa.com

Tfn.: 943 - 42.91.14

OLATZ FUENTE



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

# [b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Itiondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurutxaga, Iban Urizar, Kokoa K.E., Urutzuna, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzen Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gerlu Koop. E. TRADA 4.330 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

## I. URTEURRENA

2004ko ekainaren 23an, 92 urte zituela hil zen

*Juana Arrate Arriagaren*

oroimenez urteurreneko meza izango da,  
 larunbatean, ekainak 25, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
 Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.




## KEXAK

• Emakume batek esan digunez, **Jubilatuen Biltokiko igogailua azkenaldian ez dabil batere ondo**: "Urte honetan arazo mordoa eman ditu Jubilatuen Biltokiko igogailuak. Askotan egon da hondatuta eta konpontzen duten arren, berriz hondatzen da. Jende nagusi asko joaten da Jubilatuen Biltokira edo Eguneko Zentrora, eta batzuk gurpildun aulkian daude. Igogailua egoera onean egotea oso garrantzitsua da. Aspalditik ari dira esaten igogailu berria jarri behar dutela, baina oraindik ez dute jarri. Mesedez, lehenbailehen konpondu arazo hau."



• Herriko mendizale batek esan digunez, **jendeak Hiru Iturri mendiko iturriari egurrezko tapoia kendu egiten dio**: "Hiru Iturri mendiko iturriak egurrezko tapoi bat dauka jarrita, eta jendeak irekitzen duenean, gero ez du ixten, eta iturria lehortu egiten da. Normalean ez da ur faltarik egoten, baina bero egiten duenean ez bada egurra jartzen, ez da urrik egoten. Joan zen astean mendi buelta bat egitera joan nintzen, eta ura edateko gogoz iritsi nintzen Hiru Iturrira. Egurrezko tapoia kanpoan eta iturria lehortuta aurkitu nituen. Karakateko iturriarekin gauza bera gertatzen da. Mesedez, errespetatu dezagun natura!"

## TXALOK



• Elgoibarko gazte koadrila rockero batek **Aterkings taldeko Alberto eta Martxelo txalotu nahi ditu** Bilboko Aste Nagusian Iggy Pop handiarekin joko dutelako: "Hori martxa, hori! animo eta segi horrela!"

• Herriko irakurle batek **BARRENeke Zozoak Beleari atalean idazten duten bikoteak txalotu nahi ditu**: "Ostiraletan plazer bat izaten da niretzat, besteak beste, BARRENa ireki eta lehenengo orrialdean zuen iritzia irakurtzea. Txalorik beroenak eta zorianak, beraz, atal hau egiten duzuen bikote guztioi!"

• Herri Eskolako Guraso talde batek **Julian konserjea txalotu nahi du**: "Egunero, hutsik egin gabe, eguraldi ona edo txarra egin Julian autobusera joaten da Herri Eskolako umeak jasotzera. Zorianak Julian eta jarraitu horrela!"

Atal honetarako kexak, txalokak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🚗 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🚗 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Batoz informazio eske!*



## URRUZUNOREN Luma

### Izenaren izana

*Ainhoak Urko* gertu sentitu nahi, baina kostako zaio, *Urkok* tinko jarraituko du eta bere herrian.

*Ekhi* haserre da,  
*Hode(a)* ez da bere gainetik segundu batez ere aldentzen.  
*Haritz* gaztea *Enara* noiz iritsiko den zain da,  
*Enarak* musikatu dakizkion udaberriko egunsentia.  
*Iba(a)* *Oihanaren* oinak laztanduz dator,  
*Iba(a)*k bizitzaz betetzen du *Oihana*.  
*Haizea* indarkeriaz astintzen ari da *Sare* babesgabea,  
 iparra galdu du *Haizeak*,  
*Sare(a)* noraezean dabil *Haizearen* eskuetan.  
*Zuhaitz(a)* *Elur(ra)* iritsiko den eguna amesten ari da,  
 bere berotasuna desio du,  
*Zuhaitz(ar)*en ingurukoek ezin badute ere horrelakorik jasan.  
*Harkaitz(a)* *Lur(ra)* lantzen ari da,  
*Lur(ra)* aberastasun goxoen iturri izango du, ziur da.

*Oihana Apellaniz*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### IOSU MUGERZA

BELAUSTEGIKO  
SUKALDARIA

• **Pertsona bat konkistatzeko afari bat?**  
 Hasteko foie pixkat, eta gero mariskoa, txanpan frantses on batekin lagunduta.

• **Parranda on bat egiteko edaririk onena?**

Niri Gin-Kas-a gustatzen zait.

• **Resaka pasatzeko zer jan edo edan behar da?**

Asko jan behar da resaka pasatzeko. Juergak gosea ematen du, eta gorputzari eskatzen duena eman behar zaio. Janari astunak hobe, eta ur asko edan.

• **Afari erromantiko bati jarriko zeniokeen banda sonoroa?**

Musika asko gustatzen zait, *Memorias de Afrika* pelikulako banda sonoroa, *Bangles* edo *Cafe del mar*, adibidez.

• **Zein da Belaustegiko espezialitatea?**

Neguan ehiza, eta udan arraina.

• **Ospakizun berezi batean falta ezin den janaria?**

Ezkontzetan adibidez, mariskoa eta rapea ezin dira falta.

• **Lagunik txarrenari zer emango zenioke afaltzeko?**

Bi arrautza egosi lehor-lehorrak!

• **Gorrito duzun janari bat?**

Barrukiak: giltzurrunak, muturrak, belarriak... Horrelakoak ez zaizkit gustatzen, bestela denetarik jaten dut.

## komikia



*Kokoe 23*

## [AKORDATZEN NAIZ]



**JOSE MARI BETELU**

1932an jaioa

### «Elizia»

**E**liziak demaseko indarra zakan orduan, sekulako presia egitten zigun. Dana pekatua zan orduan. Mezetara juten giñanian, 14-15 urterekin, sustaia urtetzen giñan elizatik. Danian sua eta inperua ikusten gendun. Aste haretan neskeri beitu ere ez giñon egitten. Eta neskentzat ondiokan gogorragua zan. Astero juten giñan mezetara domeketan, baiña derrigortuta. Maixua juten zan begiratzeria ia zein falta zan, eta ez zaguanari kastigua ipintzen zion. Gaur egunian apenas juten naizen, aspertuta nago. Gaur egun esaten deben Jaungoiko horretan ez dot sinisten.

Gero komunixua egin bihar zan: bata 7 urterekin eta bestia 12rekin. Guk oso pozik egitten gendun. Gero konfirmazua, eta ezkondu ere elizaz

egin nitzan. Minigonia ezin zan ibilli pekatua zalako; mutilletan egittia ere pekatua zan, eta dana gaizki zagan. Eliziak beti beriarri eutsi dio, gaur egunian ere bai. Gauza askotan ez dau asmatu.

Gaur egunian, jende asko zibilitez ezkontzen da, eta ixa elizatik ezkontzia baiña hobia dala uste dot. Apartatzeko ere erreztasun gehixago lagatzen dau, eliziantzako dana problema da, oso antigualeko geratu da.

Parejak ezkondu gabe alkarrekin bizitzia, ba bueno, bakoitzak erabaki dagixela, baiña nik uste dot konpromiso-papel bat inportantia dala. Nere alaba bat mutillarekin bizi da, eta beti esaten diot agiri bat eukitzia ona dala, nahi badebe zibililetik; hori etxata inporta.

## [GURE BERBAK]

### Animalixak esamoldietan (2)

Esamoldietan sarri samar erabiltzen dittugu animalixak, bai konparazioz bai metafora moduan. Hona, ba, beste adibide batzuk:

- *Kalian uso, etxian otso.*
- *Gabian uso, goizian bela.*
- *Horrek umiorrek jaukak txakur-etzula!*  
*Bildurtzeko modukua dok!*
- *Zer dala ta ez dakiit, baiña txakurtu egin jata azkenian lagun usteko haura.*
- *Hori dok txakur-muturra jarri didana aguazillak! Gaizki aparkau dotelako izango zuan!*
- *Txoriburu bat izan dok hori beti.*
- *Txorimalo bat bezela darabille gizon hori bere lagunak.*
- *Asko hunkittu zan Kamona bere agunian: neri ere oillo-ipurdixa jarri jatan haura negarrez ikusi nabanian.*
- *Gaur egunian txamkerixia eta abarra bada kaminbaztarretan.*
- *Asto zurixa allegau da, umia, eta guazen ohera.*

Jesus Mari Makazaga



*Buzo urdiña jantzitta  
alde batetik bestera,  
den-dena beti emanez  
eta ezer ere ez eskatata.  
Faltan botako dittugu  
eman gabeko azken muxu  
eta besarkada.  
Beti izan zera gure aittitta gudarixa.*

**Pedro Maria Barrutia Mendikute "Goikorrota"**

Atzo hil zan 85 urte zituela.

Isabel, Jose Ramon, Ibabe eta Amaia.



### «Konbertsazio konstruktiboen gatibu naiz ni»

*Alkondarie!!!! Nork ez du noiz edo noiz Gatiburen arrakasta abestu. Alex Sardui da Gatibuko ahotsa eta arima. Exkixu taldearekin hasi zen musika munduan eta ordutik aski ezaguna zaizkigu bere aurpegia eta dantza egiteko modu berezia. San Bartolome jaietan gure artean izango da Disko Infernu azken lana aurkezten. Elgoibar ondotoxo ezagutzen du parranda askotan ibili izan da hemen-eta. Are gehiago, 1983ko uholdeek Sigman harrapatu zuten eta hiru egun eman zituen hemendik atera ezinik. 39 urteko gemikarra Muxikan bizi da gaur egun.*

• **Ales ala Alex?**

Alex, Alex.

• **Musikak ez omen du dirurik ematen. Zuek, aldiz, musikatik bizi zarete.**

Oin momentuan bai baina, hala ere, denda bat dut, kopisteria bat. Exkixun garaian gutxiago kobratzen genuen eta gure helburua ere ez zen musikatik bizitzea. Gatiburekin ez dut esango guk bilatu dugunik baina aukera egon da eta jende asko gaudenez atzean, ahal den bitartean, aurrera.

• **Ze ikasketa dituzu, Alex?**

Delineante industrial! Baina sekula ez naiz horretan aritu. Egia esan, txikitan ere ez nekien zer izan nahi nuen gerora. Orain ere ez daukat ezer argi, nahiago dut gauzak datozen bezala hartu. Orain musikan nabil eta gero, batek daki.

• **Eta hori ona al da?**

Nik baietz usten dut. Azken batean, helburu bat eduki eta gero lortzen ez bada, malo. Aldiz, gauzak datozen bezala hartzen badituzu, dena da ongi etorria. Ni musikan gustura nabil baina bizitzan ezin zara geratu gauza bakar batekin, edozer gauzataraz irekita egon behar duzu.

• **Zenbat kontzertu emango dituzue aurten?**

Ea iristen garen 30era! Orain hasiko gara batetik bestera eta uda osoa geratu gabe.

• **Eta gero? Bizi?**

Lan eta lan. Ni ez naiz sekula geratzen, ez dago deskantsorako astirik, nahiz eta jo ez. Abesti berria egitea dela, entsaioak, grabazioak, kopisteria, familia...

• **Familia. Hiru hilabeteko semetxoa duzu, ezta?**

Bai, Danel. Neskari ikaragarri eskertzen diot etxean ez nagoenean berak hartzea hauraren arduraz. Gero niri tokatuko zait, noski. Hala ere, ez da gauza bera inolako loturarik ez izatea edo neska-laguna, semea... Lehen presarik gabe ibiltzen nintzen eta orain ordu jakin baterako etxera bueltatu behar, hegoak moztzen dituzu beste era batera, baina ondo konpontzen gara.







## MOTZ-MOTZ

### Estreinako...

- **Musua:** elizpe batean.
- **Ametsa:** abestea.
- **Dezepzioa:** lehenengo mailan galdua.
- **Borroka:** nerabetsunean gurasoekin eztabaidak.
- **Laguna:** Kepa, kartzelan dagoena.

### Azkenengo...

- **Malkoak:** malko gutxikoa naiz ni.
- **Barreak:** oraintxe bertan, umorea betil!
- **Pelikula:** ez naiz zalea.
- **Liburua:** La conjura de los necios.
- **Oparia:** elkarrizketa hau!



### • Trokelero, kamarero, telebista...

Bai, telebistan ere aritu izan naiz. Casting batera aurkeztu eta Betizu saioko Narras izan nintzen, musika sekzioan aurkezle. Gidoiak ere neuk egiten nituen eta esperientzia polita izan zen.

### • Casting-ak eta musika. Hor dago OT, aurkeztuko al zinateke?

20 urte izango banitu bai horixe! Edozertarako aurpegia nuen garai hartan! Niri ez zait ondo iruditzen OTko jendea nola produktu bihurtzen duten eta egia da musikari ez diola onik egiten, baina ulertzen dut jendea aurkeztea. Gazteen ilusioen kontra inork ezin du ezer esan. Ilusioak eta ametsak lortzeko edozein bide da zilegi, baita Operación Triunfo ere.

### • Oso ahots pertsonala duzu. Onerako?

Erreferentzia bat dela esango nuke, beste instrumentu bat bezala. Egia da pertsonala dela baina uste dut mesederako izan dela. Nahi eta nahi ez, Exkixuren jarraitzaileek Gatibu ere jarraitu dute. Ahotsa gustuko dutenak hor daude eta gustuko ez zutenak ere berdin, ez Exkixu eta ez Gatibu ez dute gustuko.

### • Tentaziorik gazteleraz abesteko?

Idazleek itzultzen dituzte beren lanak eta inork ez du esaten euskaldunak ez direnik, kontrakoa, zenbat eta hizkuntza

gehiagotara itzuli, hobe. Musikarekin, aldiz, ez da barkatzen. Lin Ton Taun taldeak gazteleraz atera zuen diskoa eta desagertu egin zen. Hemengo jendeak ez du onartzen eta ez ditu euskal taldeek erdaraz ateratako diskoak erosten. Euskal Herria oso kabroia da zentzu horretan.

«Euskal musikagintzan seriotasuna aportatu dugu batez ere»

### • Eta hitzak idazterakoan, presiorik?

Sekula! Eta hori oso argi daukat, gainera, inork inoiz zerbait inposatzen badi, nik ezetz esango dut. Beharrezkoa zait aske sentitzea.

### • Zeren gatibu zara?

Bizitzaren gatibu naiz batez ere eta, azken boladan, baita konbertsazio konstruktiboena ere.

### • Alkondarie bezalako abesti arrakastatsu bat zama izan ahal da?

Zama inolaz ere ez. Produktu on bat

daukazunean ezin duzu baztertu. Itoitzi Lau Teiltarekin gertatu zitzaion, Ertzainak i Aitormenarekin, Doctor Deseori Corazón de Tangorekin... Alkondarie ikur bat izan da eta izango da Gatiburentzat.

### • Zer aportatu duzue euskal musikagintzan?

Batez ere seriotasuna. Euskal taldeak ez daude kanpokoak bezain ondo ikusita, ezta tratatuta, ez produktoreen aldetik, ez entzuleen aldetik, ez kontratatzaileen aldetik ere. Kanpoko bat datorrenean nahi beste eskatu eta eman egingo zaio. Euskal taldeak urtetan ibili izan gara, baita orain ere askotan, kontzertuak ematera joan eta furgonetan aldatzen. Kirolari bati dutxa bat jartzen zaion bezala, musikari bati ere zor zaio tratatu eta errespetu hori. Guk lortzen ditugun gauza apurrak hurrengoek berez izango dituzte.

### • Amaitzeko, bitxikeria bat. Alex Sarduik oso landuta dauka bere look-a.

Musikari bat eskenatoki gainean aktore baten antzekoa da. Aktoreak bere testua plazaratzeko arropa bereziak behar ditu. Nik ere zerbait ezberdina behar dut jendaurrera azaltzeko. Bisera, esaterako edo, aurtengo berezitasuna, alkandora beltza, edo berdea edo... Ikusiko da.

## [ PROTAGONISTA ]



### Markel Bergara

Markel Bergara Realeko jokalaria elgoibartarra 20 urtez azpiko Futbol Mundiala jokatzen ari da Holandan. Markelentzat denboraldi zaila izan da aurtengoa, izan ere, Realeko erdilariak lesio ugari izan ditu. Hala ere, 16 urte zituenetik Espainiako Selekzioan jokatzen ari da, eta esperientzia horrek aurtengo Futbol Mundialerako giltza eman dio. Lehenengo bi partidetan ordezkoren lekuan egon zen, baina Hondurasen kontra hasieratik jokatu zuten. Azken berrien arabera, Markel Bergarak C.D. Eibar taldean jokatuko du hurrengo denboraldian Realak utzita.

## [ NOTIZIA ]

### Udalak eta merkadilloko saltzaileek akordiorik lortu gabe jarraitzen dute

**H**amar hilabete pasatu dira dagoeneko, eta oraindik ez dago akordiorik Udala eta merkadilloko saltzaileen artean. Joan zen astean izan zuten bilera eta Udal Gobernuak Plaza Txikia proposatu zuen Sigmako obrak amaitu bitartean merkadilloa jartzeko toki bezala, baina obrak amaitu bezain pronto Sigmara joango zirela sinatu behar zuten, eta bestela, saltzaile berriei utzi beharko zieten tokia. Merkadilloko saltzaileak proposamena onartzeko prest azaldu ziren, baina Sigmako obrak amaitzean erreferenduma egitea eskatu zioten, herritarrek erabaki dezaten merkadilloaren kokapena. Halere, ez batzuk ez besteek ez zuten jarritako baldintzak onartu eta, ondorioz,



akordioak kale egin zuten.

#### Mobilizazioak

Azokako merkatariek atzo herria zeharkatu zuen autobusa atera eta kaleak kartekez bete zituzten. Esan dutenez, Udalak lanerako toki bat eman arte mobilizazioekin jarraituko dute.

## [ ZENBAKIA ]

# %100

Ekainaren 8tik 10era bitartean, Elgoibarko Institutoko Batxilergoko ikasleek selektibitate azterketa egin zuten eta ikasleen %100ak gainditu du. Are gehiago, ikastetxeko batez besteko nota Euskal Herriko batez bestekoa baino altuagoa izan da. Dagoeneko ikasbidaian daude Paris, Holandan eta Tunes inguruan.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Olaizaga Kirolegia bide-segurtasunaren eszenatokia izan zen joan zen astean. Astelehenetik ostiralera Herri Eskola, Pilar Ikastetxea eta Elgoibar Ikastolako ikasleek, bidean nola jokatu behar den ikasteko aukera izan zuten. Kasu honetan, Ertzainak izan zituzten irakasle, gai honetan adituak. Besteak beste, zebra bideak nola gurutzatu, eta semaforoak eta autoak errespetatzen ikasi zuten. Bide-segurtasuna, eskolako gaiak bezain garrantzitsua da, eta oso baliagarria gainera.

## Trenbide mantenuari buruzko Dano-Rail kooperatiba sortu du Danobatek



**D**anobat taldeak Dano-Rail kooperatiba jarriko du martxan. Dano-Rail enpresa trenbideen mantenturako produktu linea bat diseinatu, komertzializatu eta fabrikatzeaz arduratuko da. Proiektu berri honen hasierako kapitala 960.000 eurokoa da. Danobatek %24ko partehartzea dauka, eta gainontzekoa MCC Inbertsioak eta MCC Berrikuntzen artean banatzen da.

### 2006-2009

Dano-Rail enpresak 17 milioi euroko eskariak edukitzea eta 14,2 milioi euro fakturatzea espero du 2006-2009

urteetan. Langile kopuruari dagokionean, beharren arabera gehitzeko asmoa dute, eta lau urte horietan 25 profesional kontratatzea aurreikusten dute.

Danobatek badu trenbidearen sektorean esperientziarik: Danobat eta Soraluze kooperatibek hainbat urte daramatzate Espainiako eta atzerriko tren konpainia batzuentzat lanean, besteak beste, India, Txina eta Alemania. Dano-Rail kooperatiba berri honekin jauzi kualitatiboa eman nahi dute. Momentuz, hainbat eskaintza egin dira Sevillako metrora, Velez-Malaga tranbiara eta Argeleko metrora.

## Artetxeko etxeak eta Altzolako bainuetxea xarma bereziko eraikuntzak



Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arkitektoen Euskal Nazional Eskolak xarma berezia duten Gipuzkoako eraikuntzen gida kaleratu du. Guztira 34 eraikuntza sartu dituzte gida honetan, eta horien artean bi Elgoibarkoak dira, Artetxeko etxeak eta Altzolako bainuetxea, hain zuzen ere.

1953. urtean Pedro Muguruza arkitektoak egin zituen Artetxeko etxeak, eta gida honetan egoteko arrazoiak etheen kokapena eta lorategiei eskainitako espazioa dira. Altzolako bainuetxea, beriz, XIX. mendeko eraikuntza klasikoa da.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### 15 EHNA gehiago

Joan zen larunbatean EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) egiteko aukera berri bat izan zen eta 15 lagun inguruk egin zuten. Antolatzaileek esan digutenez, iraila edo urria aldera berriro jarriko dute mahaia. Bestalde, Bai Euskal Herriari ekimenak Gipuzkoako Auzitegiko Fiskaltzak Amaldo Otegiaren aurkako neurriak hartu izana salatu du, apirilko hauteskunde autonomikoetan EHNA-rekin bozkatzegatik.

### Bertsotegi eta egonaldiak

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak udarako bertso-bertsotegi eta egonaldiak antolatu ditu Aubixan. Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko Udaleko Euskara Sailera jo daitezke (943 74 43 66). Egonaldiaren prezioa 160 eurokoa da. Udaleko Euskara Batzordeak matrikularen %40a ordaintzeko dirulaguntza emango du. Gaztetxoek ordainduta matrikularen egiaztatzea eraman beharko dute Elgoibarko Udaleko Euskara Sailera uztailaren 4a baino lehen.

### AEK Euskaltegia

Udako ikastaroetan parte hartzeko matrikulazio epea ekainaren 28an bukatuko da. Bertsotegietarako aukerak ere eskaintzen ditu AEKk. Informazio gehiago lortu edo izena emateko 943 14 13 32 telefonoan, edota elgoibar@aeonet.net helbidean.

### Hiru atxilotu tabernan lapurtzeagatik

Elgoibarko bi gazte (U.O.T. eta R.G.S.) eta Mendaroko bat (D.B.A.) atxilotu zituzten astelehen gauean, San Antolin auzoko taberna batean lapurtzen saiatzeagatik. Dirudienez, hiru gazteak tabernaren atzeko leihotik saiatu ziren sartzen. Gertakaria goizaldeko 4:00ak aldera izan zen.

# Inkesta

PPko eta PSOEko hautetsien kontra atentaturik ez duela egingo adierazi du ETAk

## Zer iruditzen zaizu ETAREN azken agiria?

**KARMELE OLANO**  
Rektifikatzailea  
51 urte



“Oso ondo iruditzen zait, honelako erabakiak beharrezkoak direla uste dut. ETak eman du lehenengo pausoa, orain PP eta PSOEren erantzuna falta da.”

**JUAN AGIRREGOMEZKORTA**  
Langabetua 51 urte



“Oso ondo dagoela uste dut. Bakea lortzeko bidean aurrerapauso garrantzitsua izan da ETak hartu duen erabakia. Honelako ekintzak beharrezkoak dira bakea lortzeko.”

**JOSU MOTRIKO**  
Produkzioko langilea  
23 urte



“Ondo dago, ETak pauso garrantzitsua eman du, bake-rako ate bat ireki du baina orain PP eta PSOEren erantzuna falta da, bai hemen eta baita Madrilen ere.”

**BRAULIA MORENO**  
Etxekoandrea  
49 urte



“Erabakia benetakoa baldin bada behintzat, oso ondo iruditzen zait. Aurrerapauso garrantzitsua da, eta aspalditik hartuta egon beharko litzatekeela uste dut.”

## [ BAI ala EZ? ]

Eskatu al duzu inoiz desiorik San Juan suaren gainetik salto egin aurretik?

**BAI %40**

“Txikitan, baserrian dantzan eta kantuan egiten genuen suan inguruan eta gero bakoitzak desio bat pentsatu eta salto egiten genuen, lehenengo nagusiek eta gero txikiok.”

**EZ %60**

“Ez, nik ez. Aspaldi gainera ez dudala su gainean salto egiten, baina aurten igual... Betetzen al dira desioak salto egin ezkerok?”

Datorren asterako... **Korreo elektronikoak posta tradizionala jan du.**


**Oraindik ere bidaltzen/jasotzen al dituzu eskuz idatzitako eskutitzak?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7744** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala** hotelean. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!  
[www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)

## [ GOMENDIOA ]



**Lucia Casquero**

**KEMEN**  
Belardenda

## Dieta osasuntsua (II)

**O**sasunarentzat oso garrantzitsuak dira lipidoak edo koipeak. Eguneroko elikaduran beharrezkoak dira ondoko funtzioak betetzen dituzte-eta:

- 1.- Koipeak erretzen direnean, gorputzaren tenperatura mantendu eta bere funtzio guztien garapena berrabiarazten dute.
- 2.- A, D, E, F eta K bitaminen iturri dira.
- 3.- Gantz-azidoei esker, Omega 3 eta Omega 6 deritzenak jasotzen ditugu.

Hala ere, ona izateko, ale, hazi edo fruituen presio mekanikoz lortu behar da koipea. Ondoren olio iragazi egiten da eta koipe bizia lortzen da, bere ezaugarri eta bitamina guztiekin. Honi lehen mailako presio hotzetik ateratako koipea

deitzen zaio. Aldiz, findutako koipea presio beroaren (160-200 gradu) ondorioz ateratzen da eta, batzuetan, baita baimendutako disolbatzaile kimikoren bat gehituz ere. Azken hau koipe kopurua gehitzeko egiten da baina hasieran aipaturiko onurak galdu egiten dira prozesuan. Olioaren aireztapena ere ez da gomendatzen koipe hau erretzean toxinak botatzen baitu eta, gainera, bitaminak aldezurik erretzen daude.

Ondo eta garbi jateak ez du zertan aspergarria izan. Alderantziz, ona da ikertzea, esperimentatzea eta denetik hartzea. Elikadura zaintzeaz gain, osasunerako ezinbestekoa da erlaxatzen jakitea, egunero ariketa egin eta mendira edo hondartzara joatea pilak kargatzeko.



## [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen Belardenda**

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldia)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Sanatana Dharma Yoga Elkarte**

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

**Ikus Optiko-optometriska**

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### HORTZ KLINIKAK

**Nora Bastida**

Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75

Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

**Gerardo Natenzon**

Santa Ana, 20 behe - Tel: 943 74 36 35

Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

### FISIOTERAPIA

**Olatz Fisioterapia**

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlaxazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel: 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu,  
deitu 943 74 37 04ra**



**JOSE MIGUEL CERRATE**

**BOLIVIA [HEGO AMERIKA]**

## «Zoriontasun bila etorri nintzen Elgoibara»



**BOLIVIAKO SANTA CRUZ HERRIKOA DA JOSE MIGUEL CERRATE. 19 URTE BESTERIK EZ DITU, ETA BERE HERRIALDEKO KRISI EKONOMIKOAK BULTZATZUTA IRITSI ZEN GURE ARTERA DUELA 9 HILABETE. MOMENTUZ OSO GUSTURA DAGO HEMEN, ZORIONTASUNA BILATZEA DA BERE HELBURUA, ETA HORRETARAKO LANEAN DIHARDU. PAPELIK GABEKO ETORKIN BAT GEHIAGO DELA AITORTU DIGU.**

### 🚩 **Noiztik zaude Elgoibarren?**

Duela bederatzi hilabete etorri nintzen. Nire izeba Elgoibarren bizi da, duela lau urte etorri zen Boliviatik hona, eta horregatik erabaki nuen Elgoibarrera etortzea.

### 🚩 **Zergatik erabaki zenuen Boliviatik ateratzea?**

Krisi ekonomiko eta politiko larria dago Bolivian, ez nuen beste aukerarik izan. Lehenbailehen atera behar nuen handik.

### 🚩 **Izan al zenuen arazorik hona etortzeko?**

Bai. Bi saiakera egin behar izan nituen. Lehenengoan Madrilera iritsi nintzenean, atzera bidali ninduten. Europar hauteskundeak ziren, eta ez zidaten sartzen utzi. Bigarren aldian, zorionez, ez nuen arazorik izan. Papeлик gabeko etorkin bat gehiago naiz.

### 🚩 **Bakarrik etorri al zinen?**

**«Lan on bat aurkitu eta nire familia hona ekartzea da nire nahia»**

Bai. 19 urte ditut, oso gaztea naiz, eta erabaki garrantzitsua izan zen, baina denon hoberako erabakia zen. Gainera, nire izeba hemen zegoela kontuan izanik, errazagoa egin zitzaidan dena.

### 🚩 **Familia handia laga al duzu Bolivian?**

Nire gurasoak, arreba bikia eta zazpi urteko anaita laga nituen. Oso gogorra eta tristeza izan zen. Zorionez, duela hiru hilabete inguru, nire arreba bikia etorri zen Elgoibarrera. Nire izebarekin bizi da, eta laister nire lehengusinak ere etorriko direla uste dut.

### 🚩 **Zertan diharduzu hemen?**

Momentuz asteburuetan bakarrik egiten dut lan. Taberna batean kamarero eta atezain lanak egiten ditut. Papeлик ez edukitzea arazo bat da lana aurkitzeko orduan, toki askotan ez naute hartzen, eta beste



batzuetan hasieran baietz esan arren, papelik ez dudala konturatzen direnean kalera bidaltzen naute.

**👤 Zeren bila etorri zinen?**

Zoriontasun bila etorri nintzen Elgoibarera, oraindik ez dut aurkitu, baina pazientzia apur batekin aurkituko dudala uste dut; ziur nago. Nire nahia lan on bat topatu eta familia guztia hona ekartzea da. Momentuz behintzat, Bolivian baino bizi kalitate hobea daukat.

**👤 Nola hartu zaituzte hemen?**

Oso ondo, jendea oso jatorra da. Kanean jende guztiak agurtzen zaitu, Bolivian ezagunek bakarrik egiten dizute kasa.

**👤 Non bizi zara?**

Logela bat alokatu dut. Izebaren etxean jende asko dago, ez zegoen denontzat tokirik. Etxebizitzak oso garesti daudela konturatu naiz, ez da erraza etxebizitza bat eskuratzea.

**👤 Zer izan da gehien gustatu zai-zuna? Eta gutxien?**

Jendea, janaria... orokorrean dena gustatu zait. Momentuz behintzat, aldaketa hobeko izan da. Inguruko herri batzuk ere bisitatu ditut, eta Deba asko gustatu zitzaidan. Zailena ordutegi berrira ohitzea izan da. 6 orduko diferentzia daukagu, eta hasieran galduta nengibilen. Gutxien gustatu zaidana, larunbat arratsaldeetako giroa izan da. Jende gazte asko ikusten da edaten eta erretzen. Droga asko ikusten da kanean, gazte askok kontsumitzen dituzte drogak. Haritu egin naiz, Bolivian ez da horrelakorik gertatzen. Han jende nagusiak bakarrik erretzen du.

**👤 Oso desberdina al da Boliviako eta hemengo bizimodua?**

Bai. Bolivia oso pobrea da. Diru gutxiarekin hemen baino gauza gehiago erosi daiteke, baina dirua edukitzea oso zaila da. Hemengo bizimodua duinagoa da. Lana eginez hemen ondo bizi daiteke, hori bai, gauzak oso garesti daude. Temperatura aldetik ere desberdinak dira, Bolivian jertse batekin nahikoa da negua pasatzeko, urte guztian bero egiten du.

**👤 Boliviako egoera politikoak eragiten al dizu?**

Bai. Presidenteak kargua utzi du, eta egoera ez dago batere ondo. Bolivian politiko guztiek gauza bera egiten dute, boterera iristen direnean, beraien poltsikoa aberastea nahi dute, ez dute herriarengan pentsatzen.



**BOLIVIA**

- **Hiriburua:** La Paz
- **Azalera:** 1.098.581 km<sup>2</sup>
- **Biztanleria:** 8.328.700 (2000)
- **Dentsitatea:** 7,6 km<sup>2</sup>ko
- **Bizi itzaropena:** 64 urte
- **Erljioa:** Katolizismoa
- **Hizkuntza:** espainola, quechua eta aymará.



# GAZTIA NAIZ

## 10 tsaGABE

Jon Ulazia 17 urte



**Zer moduz joan da ikasturtea?**  
Nahiko ondo, baina dagoeneko nekatuta eta aspertuta nago.

**Izan al duzu sekula notak faltsifikatu beharrik?**  
Ez, errieta asko egin didate, baina ez ditut inoiz notak faltsifikatu.

**Oporretarako planik onena?**  
Kostaldeko herriren batean parranda eta parranda.

**Zein famatu muxukatuko zenuke izarren azpian?**  
Najwa Nimri gustatzen zait.

**Hondartzara, egunez ala gauez?**  
Gauez, iluntasunaren misterioaz gozatzeko.

**Zein desio eskatuko zenuke San Juan gauean?**  
Ikasturtea gainditu eta LOGSE batxilergoa egin ahal izatea.

**Zer erreko zenuke San Juan suan?**  
Oroitzapen txar guztiak.

**Edalontzia, erdi hutsik ala erdi beteta?**  
Batzutan erabat beteta eta bestetan erabat hutsik.

**Elgoibarko alkatea bazina zer egingo zenuke?**  
Etxebizitzaren prezioak jaitsi.

**Loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?**  
Lehenengo gauza, jantziak erostera joan!

**Futbola ala politika nahiago?**  
Politika, futbola ez zait batere gustatzen.

**Zein izan da zure bizitzako unerik onena?**  
Edinburgora joan nintzen astea, errepikatuko nuke.

**Eta txarrena?**  
Azterketa garaia.

**Maitemindu al zara inoiz?**  
Bai, askotan.

**Zerk ematen dizu beldurra?**  
Bakardadeak.



# BARREN

## jakiteko...

### GOMENDATZEN DIZUT LEHIAKETA ABIAN

Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoak "Gomendatzen dizu" lehiaketa jarri du martxan. Lehiaketaren helburua udako oporren inguruko gomendioak elkartrukatzea da. Parte hartu nahi dutenek bizi izan duten oporren inguruko gomendioak bidali behar dituzte: herri bat, txokoren bat, hondartza, aterpetxe, jatetxe, museo edo dena delako lekuren baten berri emanaz. Testua edo argazkia bidali dezakete. Jasotako gomendioekin txostena egingo da eta

bulegora hurreritzen diren gazteek informazio hori erabili ahal izango dute oporrrak antolatzeko. Parte hartzen dutenen artean bi sari zozketatu dira: 17 urtera artekoentzat MP3 sarrera duen disc-man bat eta 18 urtetik gorakoentzat 2 lagunentzako asteburua aterpetxe batean. Epea, irailaren 30ean bukatuko da. Testuak eta argazkiak [elg.gaztebulegoa@terra.es](mailto:elg.gaztebulegoa@terra.es) helbidera bidali edo Gazte Informazioak Kultur Etxean duen bulegora eraman.

### ATERPEKIDE TXARTELAREN ABANTAILAK

Aterpekide txartela adin guztietako jendeak egin dezake eta munduko 5.000tik gora aterpetxetan ostatu hartzeko aukera ematen du. Aterpetxe gehienek, kanpo-jarduerak egiteko eta ikuspegi historiko-artistiko eta kulturalaz gozatzeko aukera eskaintzen dute. Aterpetxeetan ostatu hartzeko beharrezkoa da aterpekide-txartela. Lortzeko bi aukera daude, on-line edo Gazte Informazio

Bulegoetan NAN aurkeztuz eta 6 euro ordainduz. Iraupena urtebetekoa da.



### XABIROI KOMIKIA KALERATU DUTE



Ikastolen federazioak Xabiroi izeneko komikia kaleratu du 14 urtetik gorako gazteentzat. Euskaraz idatzia, kalitate handiko marrazkiak biltzen ditu eta gaur egun komikien merkatuan euskarak duen hutsunea betetzea du helburu, besteak beste. Ikasturte bakoitzeko 3 zenbaki argitaratuko dira, lau hilean behin bana. Euskal Herriko ikastoletako ikasleen artean 35.000 ale banatuko dira debalde eta liburudendetan salgai egongo da. Testuak Harkaitz Cano eta Josean Muñoz idazleek idatziko dituzte, besteak beste, eta marrazkilarien artean dago, esaterako, Asisko Urmeneta. Halere, irakurleek ere zuzenean parte hartu ahal izango dute beraien oharrak, iritziak eta bestelakoak bidaliz.

"Gomendatzen dizut..." saria

Zure oporrek gomendatu nahi dizkiguzu?  
Kontaiguzu zein den zure herri, hondartza, mendi, ostatu  
edo dena delako kuttuna eta sari bat irabaziko duzu!

Bidali mezu labur bat edo argazki bat testuarekin

[elg.gaztebulegoa@terra.es](mailto:elg.gaztebulegoa@terra.es) helbidera edo utzi zure gomendioa Gazte Bulegoan.

Partehartzaile guztien artean bi sari zozketatuko ditugu!

- 17 urtera artekoentzat: CD portatila MP3 sarrerarekin
- 18 urtetik gorakoentzat: Asteburua 2 pertsonentzat landetxe batean.

GOMENDIOAK AURKEZTEKO EPEA: irailak 30.

ZOZKETA: urriak 7.



Elgoibarko Gazte Bulegoa  
Kultur Etxea, Nafarroa plaza  
Tel.: 943 74 14 61  
[elg.gaztebulegoa@terra.es](mailto:elg.gaztebulegoa@terra.es)

## [ IKAS KONTUAK ]

### Ikastolako neska eskubaloia txapel-dunak Gipuzkoan

Elgoibar Ikastolako 6. mailako neskek eskubaloian herri mailako txapelketa irabazi ondoren, Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten. Hainbat partidur jokatu ostean, Zarauzko txapeladunen kontra jokatu zuten finala, eta kopa Elgoibarrera ekarri zuten. Zorionak!



## Elgoibar BH Institutotoko hamar ikasleek jaso dute aurten ohorezko matrikula



**B**ukatu da dagoeneko, 2004-05 ikasturtea, eta urtero bezala, BH Institutotoko 10 ikasleek ohorezko matrikula lortu dute. Hauek izan dira: Joseba Juaristi, Leire Agea, Laura Agirregomezkorta, Antton Alberdi, Enara Yurrita, Iraitz Solabarrieta, Ander Gerenabarrena, Ane Osoro, Ainara Osoro eta Elena Laskurain. Selektibitatea ere egin dute, notak eman dizkiete, eta orain ikasbidaian daude ikasleak, batzuk Tunezen eta besteak Parisen eta Holandan. Uztailaren 1ean, kurso bukaerako diploma banaketa ekitaldia egingo dute Herriko Antzokian, arratsaldeko 19:30ean.

## IMHko tailer burua Helsinkiko Joku Olinpikoetan

Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Saileko zuzendaritza eta irakaslez osatutako ordezkaritza bat Helsinkiko WorldSkills Lanbide Heziketako Joku Olinpikoetan izan zen. Mundu guztiko 39 herrialdeetako 650 ikasleek parte hartu zuten beraien gaitasunak neurtzeko. Aurtengo irabazleak Suiza, Korea, Alemania eta Finlandia izan ziren. Euskadiko ordezkaritzak egindako bisitan IMHko tailer buruak, Juan Muninek parte hartu zuen eta bere hitzetan biltzar ikusgarria, ekipamendu-eraketa erraldoia eta maila oso altua zegoen.



## [ IRTEERAK ]



### Herri Eskolakoak Malkorra mendian

Herri Eskolako mendi taldeak antolatuta, Malkorra mendira egin zuten azkenengo irteera. Bestalde, urtean zehar 26 mendi egin dituzten umeei motxila bana oparitu zieten. Aurtengoan ere, jendearen partehartzea eskertu nahi dute mendi taldekoek.



### Pilar Ikastetxeak Iparraldean

Pilar Ikastetxeak guraso, ikasle eta irakasleek Larrun, Senpere eta Donibane Lohitzunera egindako txangoarekin eman diote amaiera 2004-2005 ikasturteari. Esan digutenez, egun polita eta alai pasatu zuten denak elkarrekin.

## IDAZMAKINAK LITERATUR LEHIAKETA

### Neskak nagusi literatura eta bertsotan



**J**oan zen martitzenean banatu ziren Idazmakinak Literatur Lehiaketako sariak Kultur Etxeako sotoan. Alex Sardui, "Gatibu" musika taldeko abeslaria arduratu zen sariak banatzeaz eta elkarrizketa txiki bat ere egin zitzaion. Guztira 95 lan jaso dira Elgoibarko Izarrako GAZ-T taldeak antolatutako duen lehiaketara. Idatzizko lanak 68 izan dira eta Etxegina Bertso Paperetara aurkeztutako lanak 27. Ipuinen arloan, Dorleta Fernandezek eskuratu zuen lehen saria DBH 1-2 mailetan. Bigarren saria Gorane Gonzalez eta Mikel Olaizolaren artean erdibanatu zuten. DBH 3-4

mailetan ikasten dutenen artean Maialen Arnedoren ipuina aukeratu zuen epaimahaiak eta Amaia De Castrorentzat izan zen bigarren saria. Batxilergo mailan, berriz, Ane Odriak "Nire fantasiak" gaiaren inguruan idatzi zuen ipuinak merezi izan zuen txapela epaimahaikoen iritziz. Etxegina Bertso paperen lehiaketan Mikel Olaizolak jantzi zuen txapela "Telebistan irten naiz" gaiaren inguruan idatzitako bertsoei esker. Gorane Gonzalezek bigarren sariarekin konformatu behar izan zuen. DBH 3-4 mailetan Maialen Olazabalek 1. eta 2. sariak jaso zituen "Ezin naiz lokartu" bertso sortari esker.

### Egur Tailerreko ikasleen lanak ikusgai



Urtean zehar egindako lanekin osatutako erakusketa inauguratu zuten Egur Arte Tailerreko ikasleek joan zen ekainaren 17an, Kultur Etxean. Estilo eta materiale ezberdinak erabiliz egindako koadroak ikus daitezke batipat. Ekainaren 30era arte egongo da artista elgoibartar hauen lanak ikusteko aukera.

### Mikel Olaizola txapeldunorde

Altsasun ospatu zen XVII. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa joan zen ekainaren 18an. Elgoibartar batek, Mikel Olaizolak, gaztetxoaren mailan parte hartu zuen eta txapeldunorde sailkatu zen. Lanak amaitu eta beharrezko batuketak egin ondoren, txapela Nafarroa Beherera joan zen, Martin Luku Donibane Garazitarrak bildu baitzuen punturik gehien. Txapel eta oroigarriez gain, finalista guztientzat sari berezi bat ere izan zen, txikien zein handien mailako finalistek aste-beteko ibilaldi baterako txartel bana jaso baitzuten Ikastolen Konfederazioaren eskutik.



### Elgoibartarrek arrastoa laga zuten Musika Eskolen jaialdian

Euskal Herriko Musika Eskolen Federazioak "Musikaz Bizi" jaiarekin eman zion amaiera 2004-2005 ikasturteari, Donostiako Kursaal aretoan. Elgoibartik bi txistulari, 12 akordeoi jole, lau biolin jole, bi tronboi jole, 12 dantza ikasle eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideak igo ziren oholta gainera. Gainera, A. Larreategui, M. Janeiro eta J. Garmendia, Inazio Bereziartua Musika Eskolako irakasleek, EHME osatzen duten 53 Musika Eskoletako ordezkariak osatutako musika taldeak zuzentzeko ardura izan zuten.



## AINHOA LENDINEZ TRIATLOILARIA

# «Duatloi bat egitea zen nire ilusioa eta aurten lau egin ditut»



*Ainhoa Lendinez Debabarrena Txirindulari Taldeko kidea da. Duatloien eta Triatloien munduan sartuta dabil eta iaiz bera izan zen neskarik bizkorrena Nahaste Borrasten eta gaur (19:00) ere itteeran izango da.*

**👉 Iaz parte hartu zenuen estrai-nekoz Nahaste Borrasten. Ez zinen zuzeneko hankarekin hasi.**

Ez. Bizikletaren kalapie-arekin arazoak izan nituen eta irteera marran erori nintzen. Altxatu eta katea aterata nuela ohartu nintzen. Eguna oso urduri pasa nuen eta honekin urduritasuna areagotu besterik ez zitzaidan egin.

**👉 Gustura aritu zinen baina?**

Emozionantea da guztiz Nahaste Borrasten parte hartzea. Herriko kaleetan egiten da eta jendeak asko animatzen du. Gisa honetako txapelketetan urduri egoten naiz, nerbioek jota, baina bitxia bada ere daukadana ematen dut gero. Proba gogorra dela esan behar da, distantziak laburrak dira eta hasieratik bukaerara topera joan behar da.

**👉 Aspalditik al zenuen Nahaste Borraste egiteko gogo?**

Beti egin dut kirola. Behobia eta tankerako lasterketa herriko asko egin ditut, baina konpetizioa ez zait sekula gustatu. Aitari esker hasi nintzen kirolean eta berak animatu ninduen Nahaste Borraste egitera.

**👉 Neska gutxi animatzen dira?**

Egia da. Elgoibar eta inguruetan oso neska gutxi ikusten dira duatloi, triatloi eta antzerakoetan. Elgoibaren 3 lagun gabiltza orain. Kirol gogorra da, baina lagatzen dituen sentazioak ederrak dira. Neskak probatzera animatu nahi nituzke hemendik.

**👉 Debabarrena taldean zaude. Zer moduz?**

Primeran. Emakumez bakarrik osatutako Gipuzkoako talde bakarra da. Panda Bizkaia, Somarribaren taldearen parekoa sortu nahi izan zuten Gipuzkoan. Iaz sortu zen eta 10 lagun gaude. Txirindularitza taldea den arren, duatloi eta triatloietan aritzea nahi dut eta nire kasuan beste 5 taldekide gaude.

**👉 Zein da aurtengo denboraldi-rako duzun helburua?**

Aurtengo helburua soberan bete dut. Duatloi bat egitea zen nire ilusioa eta jadanik lau egin ditut. Orain triatloiak dira nire hurrengo erronka.

**👉 Zein probatan parte hartuko duzu?**

Barakaldoko eta Gasteizko triatloiak egitea gustatuko litzaidake. Sprint erako triatloiak dira, dauden motzenak: 750 metro igerian, 25 kilometro bizikletan eta 5 kilometro korrika. Aurten lehen urtea dudanez, triatloi motzekin hasteko gomendatu didate. Kirol gogorra da eta asko entrenatu behar da, baina gogo eta ilusio asko dut. Disziplina izatea oinarrikoa da eta badaukat. Astia da falta zaidana. Lanean eta ikasten ari naiz aldi berean, eta horiek dute lehentasuna. Bestalde, konturatu naiz maila altua dagoela eta jendea oso ondo prestatuta joaten dela probetara. Egiten diren markak harrigarriak dira.

«Entrenatzeko gogoia eta disziplina badituz, baina astia falta zait»

## C.D ELGOIBARREN BATZARRA

### Jose Luis Insaustik beste urtebetez jarraituko du presidente karguan

C.D Elgoibarren etorkizuna zertxobait argitu zen joan zen astean ospatu zen urteko batzar orokorrean. Hautagairik azaldu ez zenez, Jose Luis Insausti presidentek beste urtebetez jarraituko zuela presidente karguan adierazi zuen. Argi laga zuen urtebeteko epea izango duela hartu duen konpromisoak, eta zuzendaritza berria lortzeko behar adina batzar deituko dituela urtariletik aurrera. Taldeak biziraungo badu herritarren parte hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak direla aldarikatu zuen. Ildo honetan aurten klubak 56 bazkide gutxiago dituela esan zuen. 526 bazkide daude. Kirol arloan urte ona izan dela azaldu zuen eta Haundik, 3. mailara itzulera, mailari eutsi izana azpimarratu zuen.



Diru kontuek tarte luzea izan zuten. Diru sarrerak 126.386,66 eurokoak izan dira eta gastuak 159.218,74 eurokoak. Hortaz, 32.832 euroko defizita izan du klubak 2004-05 denboraldian. Azken urteotako defizit joera mantendu egin da. Egun taldearen ondarea 154.610 eurokoa da. Gastuak murriztea izango dela aurtengo helburu naguisienetako bat azaldu zuten.

### 80 parte hartzaile 1. Tenis Txapelketan

Basarte Tenis Elkarte Gastronomikoak antolatutako 1. Tenis Txapelketa guztiz arrakastatsua izan zen eta 80 haurrek parte hartu zuten IMHko tenis pistan eta Olaizaga kiroldegian jokatu ziren partidetan. Tenislari gaztetxoek kirol honen etorkizuna gure herrian ziurtatuta dagoela frogatu zuten. Alebin mailan Asier Gurrutxagak jantzi zuen txapela eta Haritz Arribillagak infantil mailan, baina parte hartzaile guztiek jaso zuten oroigarri bana.



### Txurruka eta Ruiz Lagunak Pilota Txapelketako irabazle



Lagunak Pilota Eskolak urtero antolatzen duen Lagunak Pilota Txapelketako finalak ekainaren 17an jokatu ziren Plaza Handian. Benjamin mailako finalean U. Ruizek 18 eta 5 irabazi zion A. Astigarragari eta alebin mailan I. Txurrukak jantzi zuen txapela F. Conderi 18 eta 11 irabazi ostean.

Bestalde, Lagunak Eskolako pilotariak Debarroko Txapelketaren finalurrekoak jokatzen ari dira. Gaur, hilak 24, jokatuko dituzte itzulerako partidak Ikastolako frontoian, 21:00etatik aurrera. Kadeteek eskoriatzaren aurka eta jubenilek Oskarbiko bikotearekin neurtuko dituzte indarrak.

### Rafting-a eta mendia Kantabrian

Ebro ibaiaren jairolekutik gertu dagoen Ebroko urtegitik askatutako uretan solasean aritzeko aukera izan zuten Morkaiko Mendizale Elkartearekin Kantabria aldera joandako 18 lagunek. Lehen egunean rafting-a egin zuten eta bigarren egunean Ason bailarako tontor eta bailarak ezagutu zituzten. La Gandaratik Riba herrira doan PR s13 bidearen zati bat sei bat ordutan egin zutela azaldu digute. Bide hau paraje karstiko ikusgarri batetik pasatzen da.



### Gaztetxoentzako aerobik ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak gaztetxoentzako (6 eta 12 urte bitartekoentzat) aerobik ikastaroa antolatu du. Saiok Mintxetan izango dira, astelehenean eta asteazkenean, 11:00etatik 11:50era. Ikastaroari ekainaren 27an emango zaio hasiera eta uztailearen 20an amaituko da. Parte hartzeko Olaizaga kiroldegian eman daiteke izena.

### Lehen laguntzak eta ur sorosle ikastaroak

Udal Kirol Patronatuak eta Gurutze Gorriak 2 ikastaro antolatu dituzte Olaizaga kiroldegian. Lehen laguntzen ikastaroa uztailearen 1etik 8ra izango da, goizeko 9:00etatik 14:00etara, eta Ur Sorosle ikastaroak ordutegi berdina izango du baina uztailearen 11n hasiko da eta 22an amaitu. Izen ematea kiroldegian.

## OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



• Oñatiko enpresak **iturgina** behar du. **Erref. 162005004307**

• Arrasateko enpresak **etxez-etxeko laguntzaileak** behar ditu. **Erref. 162005005814**

• Zumaiako enpresak **segurtasun-zaintzaileak** behar du. **Erref. 162005006095**

• Bergarako enpresak **zaintzaileak** behar du. **Erref. 162005006318**

• Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162005005261**

• Arrasateko enpresak **peoia** behar du. **Erref. 162005006261**

• Zarautzoko enpresak **harakina** behar du. **Erref. 162005005620**

• Zarautzoko enpresak **garbiketarako langileak** behar du. **Erref. 162005006142**

• Eibarko enpresak **saltokiko saltzaileak** behar du. **Erref. 162005006094**

• Zumaiako enpresak **muntaia-kate-rako langileak** behar du. **Erref. 162005005004**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- † Mutila lanerako prest. **☎ 665 12 98 77**
- † Tituludun soldadorea eta eraikuntzan 2. mailako ofiziala den mutila lanerako prest. **☎ 943531745/661225149**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanerako prest. **☎ 686 57 82 28**
- † Ingeles magisteritzako ikasleak klaseak emango lituzke, edo umeak zaindu. **☎ 636 62 31 85**
- † Mutila edozein lan egiteko prest. **☎ 647 27 55 65**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako prest: elkar-teak, portalak, tabernak, etxeak... **☎ 676 62 38 43**
- † Senar-emaztea lanerako prest. Nagusiak edo haurrek zaindu, lorategi lanak, pintura... **☎ 676 85 30 28**
- † Emakumea etxeak garbitzeko prest. Egun solteak. **☎ 943 74 22 01 (Araceli)**
- † Mutila eskaintzen da lan egiteko: gida baimena dut, urdaitegi-harakin ezagutza. **☎ 615 00 83 46**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanerako prest: elkar-teak, portalak, tabernak, etxeak... **☎ 699 60 91 90**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanerako prest: elkar-teak, portalak, tabernak, etxeak... **☎ 646 23 51 95**
- † Neska udan tabernan lan egin edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **☎ 636 91 65 56**

### ESKAITZA

- † Ileapaintzailea behar da hilabete batzutarako. Egun erdiko kontratua. **☎ 655 511 588 (lan orduetan)**
- † Sukaldaria behar da. **☎ 943 741626**
- † Kamareroa behar da barran lan egiteko. **☎ 652 77 82 60**
- † Tabernarako kamareroa behar da lanaldi osorako. **☎ 670 25 04 29**
- † Pertsona bat behar dut udan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. **☎ 687 114 707**
- † Euskaraz dakien emakumea behar da edadeko pertsona bat zaintzeko, abuztuaren 15etik 31ra. **☎ 943 74 21 53**
- † Gida-baimena duen pertsona behar da banatzaile lanerako. **☎ 636 99 69 90 (9:00-13:00/15:00-18:00)**

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- † Etxea salgai San Pedro de Pinatar-en (Mar Menor). 2 logela, sukaldia, jange-la, komuna, terraza, aire egokitua, gara-jea aukeran. **☎ 627 377 543**
  - † Etxea salgai Donostian (Antiguo). 104m<sup>2</sup>. Egongoela handia, 2 logela. usuarios.lycos.es/pisua helbidean argazkiak. **☎ 943 377 292 (21:30-22:30)**
  - † Etxea salgai Pedro Muguruzan. Sukaldia, komuna, egongela, 2 logela, balkoia, terraza eta trasteroa. 156.000 euro. **☎ 600 300 682**
  - † Etxea salgai San Frantzisko kalean. 86m<sup>2</sup>. Egongela, sukaldia, komuna, bi logela, trasteroa, galeria, bistak. 150.000 euro. **☎ 666 04 27 10**
  - † Etxea salgai San Roken. Sukaldia, 3 logela, egongela, 2 komun, trasteroa, bi balkoi eta ganbara. Garajea aukeran. **☎ 943 74 88 53**
  - † Pisua salgai Pedro Muguruzan. Egoera onean. 90m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna ganbara. **☎ 943743368**
  - † Etxea salgai Marbellan. Atiko duplex-a, amueblatuta, garajearekin. 2 gela, binugela eta komuna, egongela, sukaldia. 14m<sup>2</sup>ko terraza, igerilekua, eta lorategia. Hondartzatik gertu. **☎ 699 17 98 72**
  - † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m<sup>2</sup>. Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldia, lehortegia eta garajea. **☎ 687 23 58 39**
  - † Etxea salgai Urсандin. **☎ 666 718 263 (Igor)**
- ### ALOKAIRUA
- † 6 laguntzako bungalow-a alokatzen dut Alcoceberren (Las Fuentes). Uztaila eta iraila. Igerilekuarekin, itsasotik 50metrora. **☎ 680 18 39 07**
  - † Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz). Bateles hondartza ondoan. Guztiz jantzita. **☎ 680 44 26 68**
  - † Apartamentua alokatzen da Saloun, Novelty eraikuntzan. Aire egokitua, igerilekua eta garajea. Terraza handia, harre-ra zerbitzua 24 ordu. **☎ 629 98 98 99**
  - † Pisua hartuko nuke alokairuan. **☎ 615 713 440**
  - † Logela edo pisua hartuko nuke alokairuan. **☎ 647 27 55 65**
  - † Pisua alokatzen da Salamancan ikasleentzat. **☎ 943 74 29 31**
  - † Pisukidea behar da etxea osatzeko. **☎ 615 76 55 15**
  - † Apartamentua alokatzen da Mallorkan. **☎ 645 82 93 45 (Aitor)**

## [ SALEROSKETAK ]

- † Pasiatzeko gurpil aulkia, etxean egotekoa, airezko koltxoia, 90zm-ko somier artikulatu elektrikoa gurdi jasotzailearekin eta barandila jokua salgai. Dena egoera onean. **☎ 927 43 23 61 (eguerdian)**
- † Bikientzako kotxesilla salgai, Inglesina markakoa (aulkia, grupo 0, zakuak...). **☎ 636 12 95 43**
- † Spitz alemaniar txakur kumeak salgai. Lulu de Pomerania, arra edo emea. **☎ 943 81 18 38**
- † Katu persak salgai. **☎ 680442668**
- † Hyundai AC 1300 autoa salgai. 43.000km. Merke. **☎ 943 74 35 78**
- † Ezkon-soinekoa eta osagarriak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. **☎ 943 08 00 81/615 72 64 30**
- † Ford Transit markako furgoneta salgai. 2000 euro. **☎ 607 46 80 14**
- † Boxer furgoneta salgai. Gora altxatzen den sabaia. 2 urte eta 5 hilabeterako garantzia. Ekonomikoa. **☎ 639 31 33 29 (Maitte)**
- † Opel Vectra 1.8 16v. salgai. 8 urte, ITV 2007ra arte. 110.000km. 4.200 euro. **☎ 699 81 25 66**

## [ GARAJEAK ]

- † Garaje itxia salgai Leku Ederren, 4. solairuan. **☎ 606 635 166**
- † Garaje itxia alokatzen da San Roken. 34 m<sup>2</sup>. **☎ 943 74 17 02**
- † Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Bi autorentzako, irekia. 60 euro. **☎ 699 81 25 66**
- † Garajea salgai Urсандin. **☎ 943 74 07 26 (21:00-22:00)**

## [ PARTIKULARRAK ]

- † DBH eta LHko klase partikularrak ematen dira. **☎ 658 71 08 73**
- † 6 urteko umeari klase partikularrak emateko pertsona behar da. **☎ 615 78 71 18**

## [ BESTERIK ]

- † Gozotegia traspasatzen da Maala ondoan. Prezio ona. **☎ 943 74 28 75**
- † Ustez auto gainean utzi eta San Frantziskotik errepidera bidean giltzak galdu nituen. Giltzero marroi batean zuden. **☎ 685 70 10 25**

ELGOIBARKO IZARRAREN UDALEKUNETAN LAN EGITEKO

## SUKALDARIA BEHAR DA

- Uztailaren 1etik 16ra.
- Askizuko aterpetxean (Getaria).
- Izena emateko eta informazio gehiago 943 74 16 26 telefonoan (Aiora) edo aiora@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikoa.

## [ZORIONAK]



† Zorionak **Eneko!** mila kilo zorion zure 6. urtebetetzean. Etxekoan eta bereziki, Ander eta Mirenen partez.



† Zorionak **Mikel,** ekainaren 20an 3 urte egin zentuelako. Familiakoan partez.



† Zorionak **Ion** ekainaren 28an 6 urte egingo dituzulako. Altxolako amona, aitaitxa eta tío Cristianen partez. Ondo pasa zure egunean. Muxu bat.



† Zorionak **Maitane** hilaren 29an 12 urte egingo dituzulako. Oso ondo pasa! Etxekoan eta bereziki, Ion eta Janiren partez.



† Zorionak **Ernaut** datorren astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Haritzen partez.



† Zorionak **Nerea** ekainaren 22an 4 urte egin zentuelako. Familiakoan eta bereziki, ahizpa Juleneren partez. Muxu handi bat!



† Zorionak gure etxeko **piratari** 3 urte haundi bete dituelako. Familia osoaren eta bereziki, Leire eta Unaien partez.



† Zorionak ekainaren 27an 3 urte beteko dituzulako. Familiakoan partez.



† Zorionak **Julen!** Ekainaren 26an 2 urte beteko dituzulako. Zure guraso eta bereziki anaia Oierren partez. Muxu haundi bat!



† Zorionak! Guraso, Patri, Betsabe eta Angelen partez. Ondo pasa!

**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
Xixilon, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**TERAPIA FAMILIARRA**  
(bikote eta banakako terapia)  
**PSIKOLOGIA**

**■ HARREMAN ARAZOAK:** bikotearekin, familiarekin edo kideekin  
**■ UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK**  
**■ ANTSIETATEA**  
**■ DEPRESIOA**  
**■ ESTRESA**  
**■ ELIKADURA ARAZOAK**  
**■ AUTOESTIMA**

miriam majika 675 61 78 55    ANTONIA IZURZOGI 943 74 36 52  
 alba bazurko 615 70 57 35    IZURZOGI BARRA-I.

**JOSE pinturak**  
(Txema)

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

**MEKANOSA**

Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



## [ OKINDEGIA ]



26 igandea IBARRENEA



## [ FARMAZIAK ]

	<b>EGUNEZ</b>	<b>GAUEZ</b>	<b>KANPOKO FARMAZIAK</b>
24	Fernandez	Fernandez	<b>IBAÑEZ</b>
25	Yudego	Yudego	Rekalde, 1 Soraluze.
26	<b>Yudego</b>	<b>Yudego</b>	Tel: 943 75 16 38
27	Zabaleta	Zabaleta	
28	Etxeberría	Etxeberría	<b>FERNANDEZ</b>
	(Errosario)		Herriko enparantza 4, Garagarza.
29	Ibañez	Ibañez	Tel: 943 75 61 42
30	Bidasolo	Bidasolo	
1	Etxeberría	Etxeberría	<b>ZABALETA</b>
	(Santa Ana)		Kalebarren, 9 Soraluze.
			Tel: 943 75 13 84



## [ TELEFONOAK ]

<b>OSASUNA</b>		<b>BESTELAKOAK</b>	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Konsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
<b>UDALA</b>		<b>ADINEKOEN ETXEAK</b>	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziera	943 74 44 14	<b>IKASTETXEAK</b>	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udaltzaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
		•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
<b>GARRAIOAK</b>		Ikastola	943 74 44 41
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		

## ALTZOLAKO

### SAN JUAN JAIK

#### Ekainak 24 (barixakua)

18:30 Pilota partida ikusgarriak

20:00 Ustekabe handia

22:00 "Aguirre" taldeak

alaitutako dantzaldia

#### Ekainak 25 (zapatua)

14:30 Herri bazkaria,

trikitilariak girotua

19:00 Zezentxoak eta poniak

22:00 "Aguirre" taldeak

alaitutako dantzaldia

#### Ekainak 26 (domekia)

12:00 Moto Txikiak lasterketa

13:00 Zintas lasterketa

17:00 Umeentzako jolasak Atxutxiren

eskutik

## IDOTORBE (SAN PEDRO)

### BAILARAKO JAIK

#### Ekainak 28 (martitena)

19:00 Kanpai jotze eta txapligu jaurtiketa

jaiei hasiera emanez

21:00 Auzotarren afaria

#### Ekainak 29 (eguztana)

11:00 Meza Nagusia

Ondoren, Saizar, Zahatzu eta Armuetak

eskainitako luntxa

14:30 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria

Egun guztian zehar "Baltzola anaiak"

#### Uztailak 2 (zapatua)

16:00 Manu Alvarezen Oroimezko II.

Motokross proba

21:00 Bertso afaria. Sebastian Lizaso eta

Angel Mari Peñagarikano

Ondoren, gaupasa "Gardoki" taldearekin

Eguna ondo bukatzeko, txokolatada

#### Uztailak 3 (domekia)

10:30 Meza

12:00 Mintxeta eta Egi harrijasotzaileak

14:00 Auzotarren bazkaria

17:30 Idi-Demak



## [ 24 BARIXAKUA ]

### 19:00 NAHASTE BORRASTE LASTERKETA HERRIKOIA

Irteera: Plaza Handitik  
16 urtetik gorakoentzat  
Izen ematea eta antolatzailea:  
Kimetz Elkartea

## [ 26 DOMEKIA ]

### 10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

### 12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Egitaraua: "Nerva" (M. Rojas), "El  
Principe Igor" (A. Borodin), "Don't  
Cry for Argentina" (L. Webber), "La  
Parranda" (F. Alonso), "Tequila" (C.  
Rio) eta "La Dominguera" (S.  
Cervantes)  
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro  
Herriko Antzokian

## [ 28 MARTITZENA ]

### 19:00 SIGMAKO PILOTA TXAPELKETA

Olaso-Egaña/Idueta-Loiola  
Beraza-Ansola/Karmel-Iriondo  
Fernando-Osoro/Xabier-Idueta  
Sigmako frontoian

### 20:00 OLAIZAGAKO SQUASH ETA FRONTOI TXIKIAREN ERRESERBEN ZOZKETA

2005. urteko hirugarren  
trimestrerako  
Olaizaga Kiroldegian  
Antolatzailea: Udal Kirol Patronatua

## [ 30 EGUENA ]

### 18:00 KURTSO BUKAERAKO EKITALDIA

IMHko Heziketa Zikloetako ikasleak  
Parte hartzaileak: Udaleko, AFMko  
eta Hezkuntza Saileko ordezkariak,  
IMHko zuzendaritza, irakasle eta  
ikasleak  
IMHko areto nagusian

### 19:00 SIGMAKO PILOTA TXAPELKETA

Xabier-Perea/Karmel-Iriondo  
Fernando-Osoro/Xabier-Idueta  
Sigmako frontoian

## [ 1 BARIXAKUA ]

### 19:30 INSTITUTUKO DIPLOMA BANAKETA

Herriko Antzokian

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«In Good Company»  
24, barixakua: 22:15,  
25, zapatua: 19:30-22:15  
26, domekia: 19:30-22:15  
27, astelehena: 22:15  
«El Reino de os Cielos»  
(Aire Libreko Zinea)  
1, barixakua: 22:30

### EIBAR, UNZAGA

«Batman Begins»  
24, barixakua: 17:00-19:45-22:30  
25, zapatua: 17:00-19:45-22:30  
26, domekia: 17:00-19:45-22:30  
27, astelehena: 19:30-22:15  
28, martitza: 19:30-22:15  
29, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

«Madagascar»  
24, barixakua: 19:30-22:15  
25, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
26, domekia: 17:00-19:30-22:15  
27, astelehena: 19:30-22:15  
28, martitza: 19:30-22:15  
29, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENez ez du gerta litezkeen  
emaldien aldaketan erantzukizunik.

## S I N O P S I A K

### «In Good Company»



Zuzendaria: Paul Weitz  
Antzezleak: Dennis Quaid, Scarlett Johansson,  
Topher Grace

Bizimodu erosoa daraman 51 urteko gizonezkoa da Dan (Dennis Quaid). Sports America aldizkari arrakastatsuko publizitate arduraduna da, jatorria izakeraz eta zintzoa. Bere alaba nagusia ospe handiko unibertsitate batean onartu berri dute eta bigarren aldiz aita izateko prestatzen ari da. Hau dena hankaz gora jarriko du bere bizitzan sartuko den 26 urteko gizaseme batek, bere ugazaba berriak, alegia. Nagusia izan arren, ezer gutxi daki publizitatearen munduaz eta Danek dena irakatsi beharko dio.

# Atzera begira



**1958**. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Aste honetan San Luis Gonzaga Eguna pasatu denez, erretratu hau kaleratzea egokia iruditu zaigu. Argazkian agertzen den Danok Bat koadrila San Luis Gonzaga Kongregaziokoa zen, eta San Luis Eguneko meza ostean atera zuten argazkia Plaza Handian.

Gogora ditzagun zeintzuk diren koadrila honetako kideak:

Goian, ezkerretik eskumara: **Bernardo Ezenarro, Jose Gabiola, ezezaguna, Karmelo Zubiaurre, Chiket (Valentziarra), Balentin Ibarluzea eta Agustin Iriondo**

Behoko ilaran, makurtuta, ezkerretik eskumara: **Jose Bedayo (†), Juan Jose Astigarraga (†), Karmelo Gil (Karmelito) (†), Josetxo Arriola (†), Juanito Galarraga eta Agustin Etxeberria.**



## ESKERTZA

2005eko ekainaren 4ean, 78 urte zituela hil zen

*Maria Asuncion Ansolaren* sendiak,  
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## I. URTEURRENA

2004ko ekainaren 21ean, 81 urte zituela hil zen

*Loreto Zubizarreta Ibaibarriagaren*  
oroimenez urteurreneko meza izango da,  
larunbatean, ekainak 25, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



# ERREHABILITAZIO ZENTRUA

MUTUA-ASEGURUAK ETA ABARREKIN KONTZERTATUA



MEDIKU ERREHABILITATZAILEA: DRA. MARIA ETXANIZ

- Fisioterapia Espezializatua
  - Errekuperazio Funtzionala
  - Masoterapia
  - Osteopatia
  - Gorputz Balorazioa
  - Kirol Fisioterapia
  - Hidroterapia
  - Amatasun Prestakuntza
  - Inkontinentzia
  - Logopedia, etab.
- (CRF/ Eibar)



San Inazio, 2  
ELGOIBAR  
Tel./Fax: 943 74 33 74

# AZKEN ETXEBIZITZAK salgai



**Neinor**

NEINOR Azkoitia  
Julio Urquijo Etorbidea, 10  
20.720 AZKOITIA

☎ 943 852 411 - 943 317 511

- 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.



uda2005

# aire libreko zinemaldia

22:30 Foruen plaza **Elgoibar**



Elgoibarko Udala  
Kultura Saila



UZTAILAK 1 OSTIRALA  
EL REINO DE LOS CIELOS  
+13 urte | 145'



UZTAILAK 2 LARUNBATA  
SAHARA  
denonak | 125'



UZTAILAK 8 OSTIRALA  
UN CANGURO SUPER DURO  
denonak | 95'



UZTAILAK 9 LARUNBATA  
MILLONES  
denonak | 98'



UZTAILAK 15 OSTIRALA  
DOS HERMANOS  
denonak | 114'



UZTAILAK 16 LARUNBATA  
LA CASA DE LAS DAGAS  
VOLADORAS  
+13 urte | 123'



UZTAILAK 23 LARUNBATA  
EL PENALTY MÁS LARGO  
DEL MUNDO  
+13 urte | 111'



UZTAILAK 24 IGANDEA  
LA MALDICION  
+13 urte | 97'



UZTAILAK 26 ASTELEHENA  
ROBOTS  
denonak | 84'



UZTAILAK 29 OSTIRALA  
BE COOL  
+13 urte | 123'



UZTAILAK 30 LARUNBATA  
TAPAS  
+7 urte | 94'



UZTAILAK 31 IGANDEA  
HABANA BLUES  
+13 urte | 119'



ABUZTUAK 5 OSTIRALA  
MADAGASCAR  
denonak | 95'



ABUZTUAK 6 LARUNBATA  
STAR WARS - EPISODIO III:  
LA VENGANZA DE LOS SITH  
+7 urte | 142'